

**NEKAZARITZA
ETA ARRANTZA SAILA****2532**

107/2005 DEKRETUA, maiatzaren 10ekoa, angularen arrantzari buruzko Dekretua aldatzeari buruzkoa.

Angularen arrantzari buruzko otsailaren 18ko 41/2003 Dekretuaren helburua (2003ko otsailaren 27ko 42. zenbakiko EHAA n argitaratua) Euskal Autonomia Erkidegoko barruko uretako angularen arrantza arautzea, eta arrantza-jarduna gauzatu ahal izateko nahitaez bete behar diren betebeharrak eta baldintzak ezartzea da.

Urtebete baino gehiago pasa da, indarrean sartu zenetik, eta 2003-2004ko arrantza-aldia amaitu ondoren, Dekretu horretako araudiaren azterketa egin da, arlo honetan benetako errealitatera zenbateraino egokitzen den egiaztatzearen.

Hori horrela, hobetu beharreko zenbait alderdi daudela antzeman da, funtsean, arrantzarako lizentziekin eta harrapaketa-orriaren diseinuarekin zerikusia dutenak, eta bai debeku-motaren bat ezartzeko beharreak ere, txosten teknikoek eta zientifikoek hori gomendatzen badute.

Horren indarrez, EAEko Aholku Batzorde Juridikoari entzun ondoren Nekazaritza eta Arrantza sailburuak proposatuta, Gobernu Kontseiluak 2005eko maiatzaren 10ean izandako bileran eztabaidatu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATU DUT:

Lebenengo artikulua.— Angularen arrantzari buruzko otsailaren 18ko 41/2003 Dekretuaren 2. artikuluko 3. idatz-zatia, lizentziei buruzkoa, honela geldituko da:

«3.— Lizentzia, Dekretu honetako II. eranskinean azaltzen diren arteko arro edo alde bakar jakin baterako emango da. Beraz titularren jarduera lizentzian zehaztutako eskualdera mugatuko da.»

Bigarren artikulua.— Angularen arrantzari buruzko otsailaren 18ko 41/2003 Dekretuaren 2. artikuluko 4. idatz-zatia, lizentziei buruzkoa, honela geldituko da:

«4.— Lizentziarekin batera harrapaketa-orria doa, Dekretu honen I. eranskinean azaltzen den bezala. Bertan, titularrak harrapakinaren pisua, arrantza-tresna gisa erabilitako bahearen diametroa, orduko botaldien zenbatekoa, eta arrantza-saio bakoitzeko botaldiko herresta-distantzia jasotzeko behar dituzten; horrekin batera, baita arrantza-ordutegia eta jarduna zein toki zehaztutako gertatu den ere.»

**DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA
Y PESCA****2532**

DECRETO 107/2005, de 10 de mayo, de modificación del Decreto de pesca de la angula.

El Decreto 41/2003, de 18 de febrero, de pesca de la angula, publicado en el BOPV n.º 42, de 27 de febrero de 2003, tiene por objeto regular la pesca de la angula en las aguas interiores del País Vasco, así como establecer los requisitos y condiciones que resultan necesarios cumplir para poder desarrollar esta actividad.

Habiendo transcurrido más de un año desde la fecha de su entrada en vigor, y ante el cierre de la temporada de pesca 2003-2004, la regulación contenida en dicho Decreto ha sido sometida a análisis, con el fin de comprobar su grado de adecuación a la realidad en esta materia.

En este sentido, se ha detectado la existencia de determinados aspectos susceptibles de mejorar, relacionados, básicamente, con las licencias de pesca y con el diseño del cuaderno de capturas, así como en lo referente a la necesidad de establecer algún tipo de veda si los informes técnicos y científicos lo aconsejan.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Agricultura y Pesca, oída la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su reunión celebrada el día 10 de mayo de 2005,

DISPONGO:

Artículo primero.— El apartado 3 del artículo 2 del Decreto 41/2003, de 18 de febrero, de pesca de la angula, referente a las licencias, queda redactado como sigue:

«3.— La licencia se concederá para una única cuenca o zona determinada de entre las que figuran en el anexo II del presente Decreto, restringiéndose la actividad de su titular a la zona indicada en la misma.»

Artículo segundo.— El apartado 4 del artículo 2 del Decreto 41/2003, de 18 de febrero, de pesca de la angula, referente a las licencias, queda redactado como sigue:

«4.— La licencia llevará incorporado a la misma un cuaderno de capturas, con el contenido que figura en el anexo I del presente Decreto, en el cual el titular deberá apuntar el peso de las capturas, el diámetro del cedazo utilizado como arte de pesca, el número de caladas por hora y distancia de arrastre por calada para cada sesión de pesca, así como la fecha, el horario de pesca y la posición exacta donde se desarrolla esta actividad.»

Hirugarren artikulua.— Angularen arrantzari buruzko otsailaren 18ko 41/2003 Dekretuaren 4. artikuluko 2. idatz-zatia, lizentzien indarraldiari buruzkoa, honela geldituko da:

«2.— Lizentzia berritzeko ezinbestekoa da aurreko arrantza-aldiako harrapaketa-orria behar bezala beteta aurkeztea, urtero apirilaren 30a baino lehenago.»

Laugarren artikulua.— Angularen arrantzari buruzko otsailaren 18ko 41/2003 Dekretuaren 6. artikulua, angularen arrantza-aldiari buruzkoa, honela geldituko da:

«Angula urriko ilargi berria baino astebete lehenagotik hurrengo urteko martxoko ilargi berriaren ondoren astebete pasa arte harrapa daiteke. Garai horretatik kanpo debekatuta dago arrantza egitea.

Txosten teknikoek eta zientifikoek ondorioz ikusten bada aurreneurri gisa beharrezkoa dela Euskal Autonomia Erkidegoko barruko uretan angularen arrantza aldi baterako debekatzea, Nekazaritza eta Arrantza sailburuak dagokion debeku-agindua emango du. Angularen arrantza-aldia txosten teknikoek eta zientifikoek hala gomendatzen denean hasiko da berriz.»

Bosgarren artikulua.— Otsailaren 18ko 41/2003 Dekretuaren I. eranskinean jasotako harrapaketa-orriaren ordeza, Dekretu honetako I. eranskinean jasotzen dena izango da balio duena.

Seigarren artikulua.— Angularen arrantzari buruzko otsailaren 18ko 41/2003 Dekretuari beste eranskin bat itsatsi zaio, arrantza egin daitekeen tokiei buruzkoa. Dekretu honetako II. eranskin gisa azaltzen da.

AZKEN XEDAPENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean dekretu hau.

Vitoria-Gasteizen, 2005eko maiatzaren 10ean.

Lehendakaria,

JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Nekazaritza eta Arrantza sailburua,
GONZALO SÁENZ DE SAMANIEGO BERGANZO.

Artículo tercero.— El apartado 2 del artículo 4 del Decreto 41/2003, de 18 de febrero, de pesca de la angula, referente al periodo de validez de las licencias, queda redactado como sigue:

«2.— Para proceder a la renovación de una licencia resultará preciso entregar el cuaderno de capturas de la temporada anterior debidamente cumplimentado, antes del 30 de abril de cada año.»

Artículo cuarto.— El artículo 6 del Decreto 41/2003, de 18 de febrero, de pesca de la angula, referente a la temporada de pesca de la angula, queda redactado como sigue:

«La temporada de pesca de la angula comprende desde una semana antes de la luna nueva de octubre hasta una semana después de la luna nueva de marzo del siguiente año, estando prohibida su pesca fuera de estas fechas.

Si de los informes técnicos y científicos se deriva la necesidad de establecer, de forma preventiva y temporal, una prohibición sobre la pesca de la angula en las aguas interiores de la Comunidad Autónoma del País Vasco, se dictará por el Consejero de Agricultura y Pesca la oportuna Orden de prohibición. Se reabrirá la temporada de pesca de la angula una vez que los informes técnicos y científicos así lo aconsejen.»

Artículo quinto.— El Cuaderno de capturas recogido en el anexo I del Decreto 41/2003, de 18 de febrero, se sustituye por el que figura en el anexo I del presente Decreto.

Artículo sexto.— Se añade al Decreto 41/2003, de 18 de febrero, de pesca de la angula, un nuevo anexo relativo a las diferentes zonas donde puede desarrollarse esta actividad y que figura como anexo II al presente Decreto.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 10 de mayo de 2005.

El Lehendakari,

JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Agricultura y Pesca,
GONZALO SÁENZ DE SAMANIEGO BERGANZO.

HARRAPAKETA-ORRIA

Eguna(1)	Arrantza noiz hasi (Ordua: minutuak)	Arrantza- gunearen kokapen zehatza	Modalitatea (zerrenda ikusi)	Bahearen diametroa	Orduko botaldien zenbatekoa, eta botaldiko herresta-distantzia	Arrantza noiz amaitu (ordua: minutuak)	Harrapaketa (gramotan)	Eguneroko oharrak

(1)Arrantzan pasa den gauaren aurreko eguna.

Modalitateak: (Ontz.) itsasontzitik; (Ba) bahez, itsasertzetik; (Ola) olatu-arrantza; (Arr) hormatik herrestatutako bahea, (Aza) aitzurrarekin.

Beharrezkoa da irteera guztietako datuak idaztea, nahiz eta ezer ez harrapatu.

CUADERNO DE CAPTURAS

<i>Fecha(1)</i>	<i>Comienzo de Pesca (Horas: minutos)</i>	<i>Posición concreta del punto de pesca</i>	<i>Modalidad (Ver listado)</i>	<i>Diámetro del cedazo</i>	<i>Número de caladas por hora y distancia de arrastre por calada</i>	<i>Fin de pesca (horas: minutos)</i>	<i>Captura (gramos)</i>	<i>Observaciones diarias</i>

(1)Fecha del día anterior a la noche de pesca.

Modalidades: (Emb) desde embarcación; (Ced) cedazo desde orilla; (Ola) pesca a la ola; (Arr) cedazo arrastrado desde muro, (Aza) con azada.

Es necesario anotar los datos de todas las salidas aunque no se haya pescado nada.

Maiatzaren 10eko 107/2005 DEKRETUAREN II. ERANSKINA.
 ANEXO II al DECRETO 107/2005, de 10 de mayo.

ARRO HIDROGRAFIKOEN ZONAKETA

ZONIFICACIÓN DE CUENCAS HIDROGRÁFICAS

Arroa/Cuenca	N.º zona zb.	Iradokizunak/Comentarios
Barbadun	1	Gune bakarra ibai arro guztian zehar <i>Única zona en toda la cuenca</i>
Ibaizabal	2	1.– Abra-Areeta (Zubi Esekia / <i>Puente Colgante</i>) 2.– Areeta-La Peña
Butroe	3	1.– Ontzitik/ <i>Embarcación</i> : Plentzia eta Gorliz Palados 2.– Lehorretik/ <i>Tierra</i> : Plentzia eta Gorliz – Arbiñako presa. Armintza (Aморrada) 3.– Lehorretik/ <i>Tierra</i> : Bakio
Oka	1	Gune bakarra ibai arro guztian zehar <i>Única zona en toda la cuenca</i>
Lea	1	Gune bakarra ibai arro guztian zehar <i>Única zona en toda la cuenca</i>
Artibai	1	Gune bakarra ibai arro guztian zehar <i>Única zona en toda la cuenca</i>
Deba	1	Ezin da itsasontzitik arrantzatu <i>No se permita la pesca desde embarcación</i>
Urola	1	Gune bakarra ibai arro guztian zehar <i>Única zona en toda la cuenca</i>
Oria	1	Gune bakarra ibai arro guztian zehar <i>Única zona en toda la cuenca</i> Harrapaketa-orriak betzeko bereizketa <i>Diferenciación para rellenar el cuaderno de capturas:</i> – Ontzitik/ <i>Embarcación</i> : Bokalea-Aginaga Lehorretik/ <i>Tierra</i> : Arro guztian/ <i>Toda la cuenca</i>
Bidasoa	1	Ezin da itsasontzitik arrantzatu <i>No se permita la pesca desde embarcación</i>